

Laurogei diskete batean

3M eta Compac etxeek, batak diskoa eta besteak irakurgailua landuta, elkarlanean LS 120 izeneko disketea presatu dute. Ohizko disketeen tamaina du, baina 120 megako ahalmena du. Hain dentsitate handia irakurgailuaren burua laserrez gidatua izanari zor zaio.

Grabitaziorik gabeko hegazkina

Europan airean mikrograbitatea aztertzean ikerketan aldaketak egingo dira. Azken sei urteotan Caravelle 234 hegazkina erabili da saiakuntzak egiteko, baina hogeita hamarren bat ikerkuntza-saiotan ibili ondoren azkenetan da. Hegaldi horietan hegazkinaren ibilbidea kan-


Airean mikrograbitatea aztertzeko bide berriak urratzen ari dira. Europan Airbus A.300-BZ erabiltzen hasi dira.



paiak duenaren antzekoa da eta barnean grabitaziorik gabeko egoera sortzen da (dagoen grabitazioa oso txikia da, lurrekoa baino ehunen bat aldiz txikiagoa). Dagoeneko Caravelle 234 hegazkinaren ordez Airbus A.300-B2 erabiltzen hasiak dira. Aparatura hegaldi parabolikoetara egokitzeko 36 milioi liberako (900 milioi pezetako) aurrekontua dago. Lehenbizi desugertu, berriz pintatu eta kontrolatu egingo dute. Gero pilotuek hegaldietan probak egingo dituzte eta mikrograbitazioa aztertzen ari diren hegazkinetan handiena izango da, zalan-tzarik gabe; kosmonautak entrenatzeko Estatu Batuetako KC-135 eta Errusiako Ilyuchine-76 txikiagoak baitira.

Giza gorputzaren holografia

Frantziako Rhin Garaian Saint-Louisko holografi institutuan hiru segundoen buruan giza gorputzaren forma zehatz-mehatz neur daiteke. Horretarako hiru angelu desberdinetatik argizkiak igortzen dira pertsonaren gorputzera. Gorputzean detektaturiko deformazioei zenbakizko kamera batek argazkia ateratzen die. Erregistratutako datuak ordenadore batera bidaltzen dira eta



Giza gorputza hiru dimentsiotan.

honek bere programari esker 150.000 puntu baino gehiagoren koordenatuak kalkulatu ditzake. Puntu horiekin hiru dimentsiotan giza gorputzaren irudia osatzen da. Teknika honek aplikazio ugari izango du industrian; eskiatzeko arropa aerodinamikoak egiten, adibidez.

Ibilgailu elektrikoaren marka

Iparramerikako Solectria etxeak garatutako teknika berriari esker, orain arte ibilgailu elektrikoak ibilitako distantzia handienaren marka 200 kilometrotik 601 kilometroraino igo da. Arrakastaren funtsa nikeluzko bateri mota berria erabiltzea izan da. Automobil elektrikoetan nikeluzko bateria hauek 1998. urtearen amaieran hasiko direla espero da.

Lehen banku birtuala

Egunetik egunera ziberespazioa mundu errealerara gero eta gehiago hurbiltzen ari da. Estatu Batuetako Security First Network Bank etxeak adibidez, Interneten baino funtzionatzen ez duen bankua sortu du. Kaudimen federalaz funtzionatzen duen ziberbanku honek, ohizko leihatilazko bankuek baino funtzionamendugastu txikiagoak ditu (kalkuluen arabera, gastuak herena dira). Burtako artekariak ere kezkatzen hasita daude, broker birtualak laster lehia egiten hasiko zaizkiela eta.

